



HEZKUNTZA SAILA

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

EBAZPENA, 2021EKO UZTAILA 20KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, 2021/2022 IKASTURTERAKO HEZKUNTZA PRESTAKUNTZA ETA BERRIKUNTZAN LAGUNTZEKO ZENTROETAN (BERRITZEGUNEAK ETA INGURUGELAK) ZERBITZU-EGINKIZUNEN ERREGIMENEAN EDO, HALA BADAGOKIO, BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENEAN HAINBAT LANPOSTU BETETZEKO DEIALDIA BEHIN-BEHIN BETIKO EBAZTEN DUENA.

RESOLUCIÓN DE 20 DE JULIO 2021, DE LA DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POR LA QUE SE RESUELVE DEFINITIVAMENTE LA CONVOCATORIA PARA SU COBERTURA, EN RÉGIMEN DE COMISIÓN DE SERVICIOS O ASIGNACIÓN PROVISIONAL, EN SU CASO, DE DIVERSOS PUESTOS EN LOS CENTROS DE APOYO A LA FORMACIÓN E INNOVACIÓN EDUCATIVA (BERRITZEGUNES E INGURUGELAS) PARA EL CURSO 2021/2022.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko maiatzaren 13ko Ebazpenaren bidez, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak eta Ingurugelak) hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunen erregimenean edo, hala badagokio, behin-behineko esleipenean betetzeko deialdia egin zen 2021/2022 ikasturterako.

Mediante Resolución de 13 de mayo de 2021, de la Directora de Gestión de Personal, se convocaron para su cobertura, en régimen de comisión de servicios o asignación provisional, en su caso, diversos puestos en los Centros de Apoyo a la Formación e Innovación Educativa (Berritzegunes e Ingurugelas) para el curso 2021/2022.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko ekainaren 21eko Ebazpenaren bidez, deialdia behin-behinean ebatzi zen, zerbitzu-eginkizunen erregimenean edo, hala badagokio, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetan (Berritzeguneak eta Ingurugelak) 2021/2022 ikasturterako hainbat lanpostu behin-behinean esleitzeko.

Mediante Resolución de 21 de junio de 2021, de la Directora de Gestión de Personal se resolvió provisionalmente la convocatoria para su cobertura, en régimen de comisión de servicios o asignación provisional, en su caso, de diversos puestos en los Centros de Apoyo a la Formación e Innovación Educativa (Berritzegunes e Ingurugelas) para el curso 2021/2022.

Era berean, deialdiaren oinarrietako bederatzigarren ebatziarekin bat etorritz, erreklamazioak aztertu ondoren edo, erreklamaziorik ez badago, Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdiaren behin betiko ebazpena argitaratuko du, hautagai bakoitzari emandako azken balorazioak adierazita, bai eta hautatutako pertsonen, baztertutakoen eta hutsik gera daitezkeen lanpostuen behin betiko zerrenda ere.

Asimismo, de acuerdo con el resuelto noveno de las bases de la convocatoria, una vez analizadas las posibles reclamaciones o si no las hubiera, la Directora de Gestión de Personal hará pública la Resolución definitiva de la convocatoria con expresión de las valoraciones finales otorgadas a cada una de las personas candidatas, así como la relación definitiva de las personas seleccionadas, de las excluidas y de los puestos que pudieran quedar desiertos.

Horrela, aurkeztutako erreklamazioak aztertuta eta Balorazio Batzorde Orokorrek egindako proposamena ikusita, honako hau

Así, analizadas las reclamaciones presentadas y vista la propuesta realizada por la comisión general de valoración,

**EBAZTEN DUT**

Bakarra.- Hezkuntza Sailaren web-orrian honako hauek argitaratzea:

- 1.- Esleipenen behin betiko zerrenda, I. eranskinean jasotakoa.
- 2.- II. eranskinean jasotako baztertuen behin betiko zerrenda.
- 3.- Merezimenduen balorazioaren behin betiko zerrenda, puntuazio osoa eta banakatua adierazita III. eranskinean jasotakoa.
- 4.- Ordezkapenen zerrendaren behin betiko zerrenda, IV. eranskinean jasotakoa.
- 6.- Behin-behineko esleipenaren aurkako erreklamazioen ebazpenen zerrenda V. eranskinean jasotakoa.

RESUELVO

Único.- Hacer pública en la página web del Departamento de Educación las siguientes:

- 1.- Relación definitiva del listado de adjudicaciones recogido en el Anexo I.
- 2.- Relación definitiva del listado de exclusiones recogido en el Anexo II.
- 3.- Relación definitiva del listado de la valoración de méritos con la puntuación total y desglosada recogido en el Anexo III.
- 4.- Relación definitiva de la lista de sustituciones recogido en el Anexo IV.
- 5.- Relación de las resoluciones de las reclamaciones contra la adjudicación provisional, recogidas en el Anexo V.

ERREKURTSOAK

Administrazio bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, betiere Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121. artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

RECURSOS

Con arreglo a lo dispuesto en los artículos 121 y siguientes, en relación con el 112.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, contra la presente resolución, que no pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Administración y Servicios en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su notificación.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko uztailaren 20an
En Vitoria-Gasteiz, a 20 de julio de 2021



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Blanca María Guerrero Ocejo

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL